

BERGARAKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, AHOTSAK PROIEKTUKO ZENBAIT LAN DIRUZ LAGUNTZEKO.

Bergaran, bi mila eta hamazortziko abenduaren 20an

BILDU DIRA

Maria Elena Lete Garcia andrea, Bergarako Udaleko alkatea Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Asier Sarasua Aranberri, Badihardugu Euskara Elkarteko lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate jaunaren aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Badihardugu elkarteak hainbat urte daramatza Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea helburu duen Ahotsak proiektua garatzen.
- 2.- Bergarako Udalak ere guztiz interesgarri deritza lan horri eta Badihardugurekin lankidetzan *Begarako ahotsak* izeneko funtsa osatzeko lanak bideratu izan ditu hainbat urtez eta Badiharduguk egitasmoa garatzen jarraitzeko proposamena egin du. Bertan adierazten denez, orain arte, datu basean dauden 289 zintetatik 164 zinta daude kodifikatuta.
- 3.- Hala, beraz, oraindik hainbat grabazio daude kodifikatu gabe eta baita kodifikatutako beste pasarte asko ere ikusteko edo entzuteko moduan jarri gabe.

Ondorioz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Badihardugu euskara elkarteak hitzarmen honen eranskinean zehaztuta datozen lanak bideratuko ditu, hitzarmena sinatzen denetik 2019ko urte bukaera bitarte.



BIGARRENA: Bergarako Udalak **5040 euroko** diru-laguntza emango dio proiektu hori burutzeko Badihardugu euskara elkarteari.

Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30, 2019ko ekainean %30 eta 2019ko abenduan %40. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuritze-agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Badihardugu euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero.

Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.





**Begarako
Udala**

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Asier Sarasua Aranberri
Badihardugu euskara elkarteko
presidentea



Maria Elena Lete Garcia
Begarako alkatea

**BERGARAKO AHOZKO ONDAREAREN BILKETA, KATALOGAZIOA
ETA HEDAPENA**

Bergarako Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak Bergarako ahozko ondarea biltzeko proiektua abiarazi zuten 2003an. Azken urteetan izandako elkarlanari esker, Bergarako ahozko ondarearen zati handi bat ikusgai dago ahotsak.eus/Bergara webgunean.

Orain arte, datu basean ditugun 289 zintetatik 164 zinta kodifikatu ditugu eta hauetatik "1 lehentasunezko" 2.644 pasarte identifikatu dira.

Lanketa prozesuari jarraipena emateko, honako proposamena egiten dugu:

A. Elkarrizketak Kodifikatu:

Bideoz egindako elkarrizketen artetik, kodifikatu gabe geratzen diren hiztun hauen zintak kodifikatuko genituzke:

• BER-111 Esteban Igartua	• BER-285 Edurne Laborda
• BER-186 Miren Osa	• BER-286 Emeterio Elkoroberezibar
• BER-266 Dominga Beitia	• BER-287 Pedro Inza
• BER-271 Joxe Mari Mujika	• BER-291 Luis Payros
• BER-277 Blas Ugalde	• BER-293 Markos Kortabarria
• BER-278 Mariasun Plazaola	• BER-314 Maria Luisa Arabiourrutia
• BER-279 Anjel Azkarate-Askasua	• BER-316 Flora Gauba
• BER-281 Begoña Zubizarreta	• BER-333 Bitori Aranburu
• BER-283 Nati Gabilondo	• BER-335 Patxi Larrañaga

B. Bideo artxiboak editatu eta Interneterako prestatu:

Dagoeneko kodifikatuta dauden elkarrizketetako bideo-pasarte batzuk sareratu gabe daude oraindik. Honako pasarte hauek sareratuko genituzke:

ZINTA	HIZLARIA(K)	PASARTE KOPURUA
BER-140	Natalio Juaristi	42
BER-141	Natalio Juaristi	2
BER-154	Donato Iburguren	24
BER-158	Donato Iburguren	19
BER-159	Donato Iburguren	10
BER-172	Pilar Murgoitio	5
BER-173	Donato Iburguren	25
BER-184	Luis Aranzabal	18
BER-190	Ubera Zabala, Eugeni - Ubera Zabala, Mari Asun - Ubera Zabala, Maria Angeles	17
BER-209	Felipe Altuna	18





180 pasarte hauek editatu eta sareratzeaz gain, aurreko puntuan proposatutako kodifikazio berriek emandako beste 180 "1 lehentasunezko" kalitatezko pasarte ere editatu eta sareratu genituzke. Guztira, 360 bideo/audio pasarte berri egongo dira sarean.

Bideo-pasarteak editatu eta sareratzeko lana %50eko deskontuarekin egingo genuke.

Beraz, laburbilduz, hauek lirategi **2018rako proposatutako lanak eta aurrekontua:**

2018rako proposamena:

18 zinta kodifikatu	2.880 €
360 bideo-artxibo editatu eta sareratu	4.320 €
% 50ko deskontua bideo-artxiboak editatu eta sareratze prozesuan	- 2.160 €
AURREKONTUA	5.040 €

BEZ-etik SALBUETSIA:

Badihardugu Euskara Elkarteari, eskaintzen dituen kultur zerbitzuengatik 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/92 Legea egokitzen duenak, 20.1.14 artikuluan jasotzen duen salbuespena aplikatzen zaio.



